



Jon URBE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

BI DONOSTIA, KONTXAKO BARANDAREN BEGIETARA

Donostiako Piratek Aste Nagusian egin ohi duten abordatzeak badu zer bait sinbolikotik. Erakundeetatik bultzatzen den jai eredu ezbaian jartzeaz gain, hiriari eman nahi zion kanpo proiektzioa bera ere badu jomugan. Donostia turistentzako egindako postal batez haragoko zer bait dela aldarrikatzen du; erakusleihu huts bat baino askoz gehiago, Kontxako badiaren argazki soil bat baino gehiago. Hori bera ikusgarri bilakatzen du abordatzeak, bi ereduren arteko talka ikusarazten du. Batetik, oraino diruak poztasuna ekartzen duela uste dutenen Donostia, euren yate, be-laontzi, eta abarrekin. Bestetik, elkarlanaren eredu diren baltsak; eskuz egindako baltsak, kuadri-lakideen artean auzolanean egindakoak, itsasoa ahalik eta gehien zaintzeko material egokienekin. Hauskorrak bezain sendoak. Bi Donostia, bi eredu, finean, Piraten abordatzeak Kontxako barandaren begietara aurrez aurre jartzen dituenak.

Aimar Etxeberria Korta